

Prensa oharra

Euskadiko Arkitektura Institutuak Eileen Gray arkitektoari eta euskal hiriei emango die garrantzia 2020-21 ikasturteko programan



2020|10|29

> Ostiral honetan hasiko da Quarantinology erakusketa parte-hartzailea, berrogeialdia hirietan gaiari buruzkoa, Eduardo Castilloren hitzaldiarekin.

> Hitzaldiak, eztabaidak, proiektio zinematografikoak, esku-hartze arkitektonikoak eta guztientzako tailerrak izango dira. Jarduera guztiak doakoak dira.

Euskadiko Arkitektura Institutuak (EAI-IAE) denboraldi honetarako programazio berria aurkeztu du ostegun honetan, non Eileen Gray irlandar arkitektoa eta diseinatzailea eta euskal hiriak protagonistak izango diren. Gizartearen eta bertan bizi diren espazioen oraina eta etorkizuna, haietan bizitzeko modua, baina baita horiek eraikitzeko modua ere, dira Institutuak datozen hilabeteetan jorratuko dituen alderdi nagusiak, 40 jarduerekin.

Horien bidez, arkitekturak bizitzaren alderdi guztietan nolako eragina duen, gure harremanetarako modua nola zehazten duen, espazioa nola erabiltzen dugun eta, beraz, gizarte gisa nola eraikitzen garen sakondu nahi du Institutuak. "Programa egonkor bat dugu, nola bizi garen eta nola eraikitzen dugun ikuspuntu desberdinetatik aztertzeko", azaldu du aurkezpenean Jose Angel Medina zuzendariak, "jardueretan parte hartzera animatzen dugu hiritargoa, guztiak doakoak eta publikoari irekiak".

2020ko erakusketa nagusiaren ardatza Euskadiko hirietako DNA identifikatzea izango da, gaur egungo hiriek elkarren artean gero eta antza handiagoa duten testuinguru globalean. Abenduan irekiko ditu ateak eta udaberrira arte bisitatu ahal izango da Institutuan. "Erakusketa gure hirien iruditeria birsortzeko aukera bat izango da, egile talde garrantzitsu baten hausnarketen eta ikuspegien ekarpenaren bidez", adierazi du Medinak.

Ikastaro honetako bigarren erakusketa handia 2021eko udaberritik aurrera ikusgai izango da eta Eileen Gray emakume arkitektoaren eginkizuna aldarrikatuko du. "Institutuak Texaseko Unibertsitateko (Austin) laguntza izango du, 1929an Eileen Grayk Kosta Urdinean eraiki zuen E.1027 etxeko gela nagusia zehatz-mehatz berreraikitzeke", zehaztu du Medinak. Lan honen bidez, XX. mendeko arkitekturaren sorreran eta garapenean emakume arkitektoek izan duten rola inguruan sakonduko du Institutuak. Erakusketarekin batera hitzaldiak eta bestelako jarduerak ere izango dira, hala nola aire zabaleko zine zikloa, udako etxeen beste adibide handi batzuk ikusteko aukera emango duena.

Bi erakusketa nagusi horien artean, Euskadiko arkitekturako profesionalen belaunaldi berriarentzako tokia egongo da. Zeharguneak programaren bitartez, protagonistek EAI-IAEko hainbat espaziotan esku hartzeko aukera izango dute. Horretarako, maiz irainduak izan diren, baina arkitekto handien obraren funtsezko zati diren elementu arkitektonikoak erabiliko dituzte.

Hasteko, koarentenan dauden hirien inguruko erakusketa

Ostiral honetan bertan, urriaren 30ean, hasiko da saioa Quarantology erakusketarekin. Erakustaldi horrek, ilustrazioen edo collagearen bidez, koarentenan dauden hirien eta horien post-Covid-19 etorkizunaren inguruko esperientzia proposatzen du. Abenduaren 5era arte, 1.500 piezako erakusketak, lotura estua sortuko du soziologiarekin, herritarrek parte har dezaketen eraikuntza baten bidez, zeina tailer ireki gisa planteatu den instalazioa berreraikitzeke. Quarantology Groupeko kide batek, Eduardo Castillok arkitektoak, erakusketa inauguratuko du ostiral honetan, koarentenan dauden hiriei buruzko hitzaldi batekin.

EAI-IAEn (Donostiako Alde Zaharreko Santa Teresa komentuan du egoitza) kokatutako esku-hartzea, Urbanbatekin ekoizita dagoena, azaroan Bilbon egingo den UrbanbatFesten

hasierako jardueretako bat da, eta programa horren barruan Bizkaitik kanpo egingo den jarduera bakarra da.

Horrela, Quarantinologyk gainerako erakusketekin egin du bat: Europan 15: Lasarte-Oria (larunbat honetan amaituko dena, urriaren 31n) eta 2019ko EHAEO Arkitektura Sariak (abenduaren 5era arte iraungo duena).

Publiko guztientzako eta profesionalentzako programa

Erakusketei, orain, jarduera sorta zabala gehitzen zaie, hitzaldi eta eztabaidak, mota desberdinetako tailerrak, bisitak, zinema-emanaldiak edo hibridazioak, non zubiak eraiki nahi diren zientzia edo nekazaritza bezalako beste alor batzuekin.

Diziplina anitzeko ikuspegi horrek Institutuan egingo diren haurrentzako eta familientzako tailer ugariak hartuko ditu bere baitan -gainera, hilean behin, asteburuan, familientzako tailer bat izango da, baita Gabonetan eta Aste Santuan ere-. Azaroko lehen bi asteburuetan, EAI-IAEn zientziaren eta arkitekturaren inguruko tailerrak egingo dira, zientziaren hilabetea ospatzeko. Lehenengoa UPV-EHUko Arkitektura Goi Eskolarekin eta Habic Clusterrarekin izango da eta bigarrena Eureka! Museoarekin eta Legorekin. Abenduan, hiri-espazioak nekazaritzako elikagaien ekoizpen autonomorako egokitzeko gaitasunarekin esperimentatuko da, alternatiba iraunkor gisa.

Bestalde, dagoeneko programazio profesionala hasi da, urteroko Plaza jardunaldiarekin: arkitektura topaketa, EAI-IAEra Euskadin arkitekturaren dibulgazioan diharduten profesionalak eta taldeak erakarri dituena, hiru euskal probintzietako erakundeetako ordezkariekin. Euskal Herrian egiten den lehen topaketa da.

Doako sarrera eta osasun-larrialdira egokitutako edukiera

EAI-IAEk sortutako jarduera guztiak doakoak izango dira eta egungo egoerara egokitutako edukiera izango dute. Zuzendutako jardueretarako, aldeztatik izena emateko sistemak ezarriko dira, www.eai.eus web-orriaren bidez. Institutuan nahitaezkoa da musukoa erabiltzea.

EAI-IAEari buruz

Euskadiko Arkitektura Institutuak 2019az geroztik lanean jarduten du arkitektura herritarrengana hurbiltzeko eta horren inguruko



eztabaida, hirigintza, paisaia eta diseinua sustatzeko. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren laguntzarekin bultzatutako zentroa arkitekturaren ezagutza bultzatzen duten eragileen topagunea ere bada.

Ordutegiak:

Asteartetik ostiralera: 17:30etik 20: 30era

Larunbat eta igandeetan: 11:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:00etara

Informazio gehiago: contact@eai.eus

